

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2015/11/19

Arloa	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Eskatu dute abiadura 30 km/h-ra murriztea hirigunean.	Gaia aztertzen ari da.
Alkatetza	Eskatu dute auzo-bileren akta bilera egin eta gutxira jartzeko udalaren webgunean, azaldu diren galderen jarraipena egin ahal izateko.	Oraingo honetan, bilera bakoitzaren akta guztiak abuztua baino lehenago argitaratuko dira, kexa, iradokizun eta proposamenak eta horien erantzunak dauzkatela.
Alkatetza	Informazioa eskatu dute txakurrentzako esparruak prestatzeari buruz.	Aztertzen ari da
Alkatetza	Eskatu dute musikaren dezibelioak mugatzea jai Galiziarretan.	Gaia aztertzen ari da.
Alkatetza	Kexatu dira Gabonetako argiztapena eskasa izan del Barrenan.	Gaia aztertzen ari da.
Hirigintza	Kexatu dira eltxo ugari erakartzen dituela Larrañaga y Elorza enpresako terrazak udan, urik ez dago eta. Garbitu dadila eskatu dute.	Urtarrilean eskatu zen estalkia garbitzeko, eta, geroago, jabea den enpresak lizentzia eskatu du agindutako lanak egiteko, baita beste zenbait lan egiteko ere (baoak ixtearekin lotutakoak, eta bestelakoak); Alkatetzaren Dekretu bidez eman zaio lizentzia.
Hirigintza	Eskatu dute autopistaren behealdea itxi dadin Saratsuegin (Sautsi), jarduera maltzurak saihesteko.	Aztertzen ari da
Hirigintza	Eskatu dute Txontako etxebizitzak birgaitzeko.	Ezin zaio erantzunik eman, kexa hain generikoa bada. Txontarako Plan berezia behin betiko onartuta dago, eta horretan aurreikusten da 2., 11., 13. eta 15. eraikinak. Gainerakoak finkatuta geratzen dira, eta beste edozein eraikinen modukoak dira: jabeei dagokie horiek mantentzea edo hobetzea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2015/11/19

Arloa	Laburpena	Erantzuna
Hirigintza	Urkizu 13ko dorreko bizilagun batek informazioa eskatu du Villalbaren lokal zaharrearantz zabaltzeko den establezimendu berriari buruz.	Telebistadun kafeteria baterako lizentzia eskatu da.
Hirigintza	Txontako bizilagun batek eskatu du informazioa eman dadila zer aukera dagoen auzoko etxebizitzak hobetzeko. Esan du eraikin gehienek 50 urtetik gora dauzkatela, eta eskatu du auzokoei dagozkien laguntzak bideratu daitezela.	Txontaren kasua Eibarko beste edozein kalerena bezalakoxea da. Bizilagunek berek arduratu behar dute hobekuntzez eta balizko laguntzak eskatzeaz, baldin eta ez badago egoera berezi bat, Juan Antonio Mogel kalean gertatu den moduan.
Obrak	Auzoko bat kexatu da mugigarritasun-zailtasunak eta irisgarritasun-arazoak daudela Txontan. Eskatu du lotura bat egiteko Arane kalearen eta Txontaren artean, Galizia hiribidean zehar.	Bi puntuen arteko desnibelaren ondorioz, ezin da eraiki arauak betetzeko moduko malda duen arrapalarik.
Obrak	Barrena kaleko 36.eko bizilagun batek esan du arazoak dituela atarira sartzeko senarraren gurpil-aulkiarekin. Eskatu du irisgarritasuna hobetu dadila.	2012an, ahal zen neurrian murriztu zen Barrena 34-36ko kalezuloaren malda, eta baranda bat jarri zen.
Obrak	Eskatu dute Azitainera eta Elizara iristeko espaloiak konpontzea. Esan du gurpil-aulkietan doazen pertsonen zailtasunak dituztela alde horretatik ibiltzeko.	Aztartzen ari da
Obrak	Barrena kaleko bizilagun batek eskatu du birmoldatu edo aldatu dadila Lidl-etik geralekuko parkera doan pasabidea.	2016ko aurrekontuan sartuta dago proiektu bat egitea geralekura doan pasabidea aldatzeko.
Obrak	Eskatu dute Bidebarrietaren, Araneren eta Arikitzaren arteko bidegurutzea.	Oinezkoentzako pasabide goratuak egin dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2015/11/19

Arloa	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Saratsuegiko (Sautsi) bizilagun batek eskatu du arrapala mekanikoak eraikitzeko bertara iristeko.	Aurreikusita dago aurtan kontratatzea proiektua egitea Saratsuegirako (Sautsi) irisgarritasuna hobetzeko.
Obrak	Kexatu dira Urkizuko dorreetan tarte handiegia dagoela barandaren azpialdetik zorura.	Indarrean dauden arauak betetzen dituzte jarritako barandek.
Obrak	Kexatu da Karmen kaleko parkean egiten ari diren obren ondorioez. Esan du oraindik ura dariela eskailerei eta baldosak lotu gabe daudela.	Lotu gabe dauden baldosak jarri dira berriro. Hesi txiki bat jarri da plazako ura eskaileretatik behera joan ez dadin.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatu du kontrolatu dadila motorrek egiten duten zarata.	Motozikletek eta ziklomotorrek derrigor pasatu behar dute Ibilgailuen Azterketa Teknikoa, eta horretan kontrolatzen da nolako zarata ateratzen duten. Guk ez dugu azterketa hori egiteko instalazio egokirik.
Udaltzaingoa	Urkizu 9ko dorreetako bizilagun bat kexatu da gazteen lokala egoera txarrean dagoela. Salatu du zaborra atera eta inguruetan uzten dutela. Eskatu du lekua garbiago egotea eta lokalen ordenantza aplikatu dadila,	Gazteen lokalek eragindako eragozpenak salatzen direnean, egiaztatu egiten dira; benetakoak izanez gero, Hirigintza Arloari jakinarazten zaio, eta horrek espedientea irekitzen du, eta, hala badagokio, lokala ixtea ekar dezake.
Udaltzaingoa	Kexatu dira umeez futboleant egiten dutela Karmen kaleko parkean.	Norbait deitzen duenean jakinarazteko norbait futboleant ari dela, patruila bat bidaltzen da futboleant egiteari uzteko eskatzera.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatu du behar bezala arautzeko Arraterako Igandeetako autobusaren jaitsierako geralekuak. Antza denez, zenbait gidari ez dira jaisten Urkizuko Zubi-Gain geralekuraino.	Arrate-Eibar zerbitzuak geraleku bakarra du hirigunean: Untzaga plazakoa.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2015/11/19

Arloa	Laburpena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatu du araua betetzeko eta zigor ditzatela gaizki aparkatutako ibilgailuak; kasu honetan, Asua Erreka kalean.	Gaizki aparkatutako ibilgailuak salatuko dira. Aginduak eman dira salatu daitezzen.
Udaltzaingoa	Eskatu dute informatzeko autobusek zer geldialdi egiten dituzten autobusek asteburuetan, baita San Agustinen gelditu daitezela ere.	Euskotrenek jakinarazi du geralekuetan kartelak jarri zirela jakinarazteko zer aldaketa dauden asteburuetan. Bidebarrietatik, Mallabia-Ondarru zerbitzua egiten duten autobusak pasatzen dira, eta Eibar-Donostia zerbitzua egiten dutenak ez.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatu du gazteen lokalei dagokien lokalei ordenantza aplikatu dadila, Urkizuko dorretan kokatutakoek eragozpenak eragiten dituzte eta.	Gazteen lokalek eragindako eragozpenak salatzen direnean, egiaztatu egiten dira; benetakoak izanez gero, Hirigintza Arloari jakinarazten zaio, eta horrek espedientea irekitzen du, eta, hala badagokio, lokala ixtea ekar dezake.
Udaltzaingoa	Salatu dute autopistaren behealdea txakur-gorotzak beteta dagola.	Txakurren batekin doan norbaitek haren gorotzak hartzen ez dituela ikusten denean, salaketa jartzen zaio.
Zerbitzuak	Kexatun dira Saratsuegiko (Sautsi) iturriak ez duela ondo biltzen ura, eta horren ondorioz hotza egiten duen egunetan izoztu egiten da gainezka egindako ura, eta labaingarri geratzen da.	Saratsuegiko (Sautsi) iturria iturburua da; horregatik, haren emaria ez da homogenea. Zenbaitetan indartsuago dator, eta horrek, haizerekin batera, zipriztintzea eragiten du. Eman lekiokoen konponbide bakarra sareta kentzea da, hala zipriztindu ez dezan, baina konponbide hori jende askok ez du gogoko, ezin izango bailirateke pegarrak bermatu ura biltzeko.
Zerbitzuak	Eskatu dute baranda bat jartzeko Iparragirre kalerako sarrera-arrapalan, utopistako zubiaren azpian.	Aztertzen ari da

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2015/11/19

Arloa	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Eskatu dute ur beltzak kentzea Eguzki-Begi kaleko 2.ean.	Gipuzkoako Urak partzuergoari jakinarazi zaio, konpondu ditzala ur beltzen sareak dituen buxadura-arazoak. Gipuzkoako Urak partzuergoak baieztatu digu arazoa konponduta dagoela dagoeneko.
Zerbitzuak	Saratsuegiko (Sautsi) bizilagun batek eskatu du errepide ondoko erreka garbitzeko. Esan du zabortegia dela, eta eskatu du estali dezatela.	2016ko otsailaren 3an idatzi bat bidali zitzaion Ur Agentziari, hark baitu errekek mantentzearen ardura. Dena dela, haren erantzunik jaso ez denez, lan-agindua eman da Brigadak sareta garbitu dezan.
Zerbitzuak	Saratsuegiko (Sautsi) bizilagun batek eskatu du jarri dadila falta den bazter-babesaren zatia.	Lan-agindua eman da bazter-babesaren funtzio betetzeko behar adina pibote jarri daitezten.
Zerbitzuak	Informazioa eskatu dute hiri-hondakinak gaika biltzeari buruz.	Mankomunitatearen webgunean (www.debabarrena.eus) eskuragarri daude hiri-hondakinak gaika biltzeari buruzko informazio eta azalpen guztiak. Argibide gehiago behar izanez gero, Mankomunitatearen bulegoetara jo beharko da (Egigurentarren kalea 2, Eibar).
Zerbitzuak	Eskatu dute saihesbideko heskaiak inaustean, horiei ibilgailuen zarata moteltzeko altuera nahikoa uzteko.	Saihesbideko heskaiak Aldundiak inausten ditu urtean behin, eta Udalak mantentzen ditu. Lorazaineni jakinarazi zaie zer lortu nahi den, heskaiei altuera hartzen usteko. Dena dela, esan beharrekoa da heskaiek zarata gutxi moteltzen dutela. Arazo hori konpontzeko, zarataren aurkako pantailak jarri beharko ditu Aldundiak.
Zerbitzuak	Urkizuko dorreetako bizilagun bat (35.eko ibiaren erabiltzea), kexatu da garajeetan ura sartzen dela Udalak azken birmoldaketa egin ondoren.	Hezetasunen espedienteak ez dira Kexa-Programaren bidez tramitatzen; berriazko prozedura baten bidez tramitatzen dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2015/11/19

Arloa	Laburpena	Erantzuna
		Beraz espediente bat ireki da ibi horretarako. Ukitutako pertsonak behar zuen informazio guztia jaso zuen martxoan.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du estolda-zuloak garbitu daitezela. Haren arabera, estoldak buxatuta daude hiri osoan.	Oro har, urtean behin garbitzen dira estolda-zuloak.
Zerbitzuak	Urkizuko dorretako bizilagun batek salatu du egoera txarrean daudela euri-urak biltzeko erretanak. Kexatu da ez dela mantentze lanik egiten horietan.	Mankomunitateari abisu eman zaio erretanak garbitu ditzan.
Zerbitzuak	Eskatu dute gaikako bilketarako edukiontzi gehiago jartzeko Saratsuegin (Sautsi) eta beste zenbait tokitan.	Saratsuegin (Sautsi) badaude bi edukiontzi multzo oso, eta beste multzo bat hiri-hondakin solidoetarako eta biohondakinietarako edukiontziekin. Egia esan, biztanle kopuruari dagozkion baino edukiontzi gehiago daude. Lehenago, multzo oso bakarra zegoen, eta, 2014an, bi multzo osotara iritsi zen. Ez edukiontzi gehiago jarri behar.
Zerbitzuak	Eskatu dute Saratsuegiko (Sautsi) kaleetako espaloiak garbitu daitezela.	Mankomunitateari abisua eman zitzaion, eta hark jakinarazi zigun astean 2-3 alditan garbitzen direla Saratsuegiko (Sautsi) kaleak.
Zerbitzuak	Salatu dute Txontako erdialdeko argiak pareko aldean jarrita daudela 15. eta 17. zenbakien artean.	Txontako alde horretako argiak proiektu bati jarraituta daude jarrita. Ezin dira pareko aldean jarri, eta ondo daude dauden tokian.
Zerbitzuak	Kexatu dira argi bat falta dela Txontako 13. eta 15. zenbakietara iristeko eskaileretan.	Inguru horretan argi-azterketa bat egin zen, eta 22 lux-eko balioak ematen zituen; beraz, balioak egokiak dira (10 luxetik gorakoak). Gainera, luminariak aldatu ziren, eta LEDak jarri.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2015/11/19

Arloa	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Eskatu dute mantentze-lanak gehiagotan egiteko Karmen kalearen atzealdean dagoen lorategian.	2011n, inbertsio bat egin zen hortentsiadun oholesia jartzeko, baina, malda handia denez, ezpondako lurra behera joan zen, eta landareak ez dira hazi. Gainera, gehitu beharra dago espezie inbaditzaile batek eraso diola inguruari (Reynoutria), eta horrek lurzorua inbaditu duela eta tapiz-landareak ez dira hazi. Horrek mantentze-lan handia eskatzen du, bertikalean, gainera. Lan-agindua eman da ezpondako belar txarrak kentzeko, eta herbizida-tratamendu bat emateko. Martxoan amaitu zen lan hori.
Zerbitzuak	Salatu dute zuhaitzak oso altuak direla Barrena kaleko 2.aren eta 16.aren arteko osteko partean, eta eskatu dute sasiak eta sastrakak garbitu daitezela.	Barrena kaleko zenbaki bikoitien osteko partean, azpikontratutako enpresa batek kentzen ditu sastrakak eta sasiak urtero; aurtun, modu berean egingo da.
Zerbitzuak	Urkizuko bizilagun batek eskatu du 6. zenbakiaren osteko partean dauden sasiak eta sastrakak kendu daitezela.	Urkizu 6.aren osteko partea pribatua da: beraz, hori garbitzea ez da Udalaren ardura. Dena dela, haren jabeari agindu zaio orubea garbitzeko, ez baitzituen betetzen baldintza egokietan mantentzeko betekizuna segurtasun, osasungarritasun eta apaindura publikoen ikuspuntutatik. 2016ko urtarrilean garbitu da.
Zerbitzuak	Urkizuko bizilagun batek eskatu du edukiontzietatik gertu laga ohi diren altzariak eta gainerako gauzak kendu eta eraman daitezela; baita horretarako propio ez diren egunetan ere.	Mankomunitatea abisua eman zitzaion, eta honela erantzun du: "Mankomunitateak kendu egiten ditu objektu handiak bide publikoetatik, nahiz eta horretarako propio jarritako egunetan laga ez edo inolako abisurik eman ez."
Zerbitzuak	Kexatu dira hondakin organikoetarako edukiontzia oso deserosoak direla erabiltzen. Esan dute auzokideek arazoak	Materia organikoko edukiontzia estandarrak dira, eta dagozkien homologazioak dituzte. Nolanahi ere, idazkia igorri zaio Mankomunitateari, hurrengo sorta erosterakoan modelo

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2015/11/19

Arloa	Laburpena	Erantzuna
	izaten dituztela irekitzeko, batez ere pertsona zaharrak direnean, atea oso astun eta altua da eta.	erabilerrazagoren bat aukeratzea azter dezan, gaur egun ez baitago merkatuan bestelako edukiontzirik.
Zerbitzuak	Urkizuko dorretako bizilagun batek salatu du ezin txarragoa dela garbiketa bertan.	Mankomunitateari abisua eman zitzaion, eta eskatu zitzaion bereziki ekiteko eremu horren garbiketan, batez ere igandeetan.
Zerbitzuak	Eskatu dute auzokoak kontzientziarazi daitezela hondakin organikoen edukiontzia erabil dezaten.	Idazkia igorri zaio Mankomunitateari. Hark jakinarazi digu 5. edukiontzirako izena eman zuten guztiei dokumentazioa eman zitzaiea; dena dela, eskatu zaio informazio-orriak (triptikoak) laga ditzala herritar guztien eskura dauden tokietan. Alkatetzen eta Pegoran uztea erabaki da.
Zerbitzuak	Eskatu dute erdialdeko argiztapena eta Barrena kalekoa konparatu daitezela, azken alde horretan argia oso ahula da eta.	Udalerrian egin zen argi-azterketan, ikusi genuen 19 lux-ekoa dela batez besteko luminantzia Barrena kalean. Alderatu ahal izateko, hona hemen beste zenbait kaletako luminantziak: San Andres pasealekuan, (erdialdea) 21 lux; San Juan kalean, 27 lux; Isasi kalean, 27 lux; Juan Gisasolan, 21 lux; Fermín Calbetónen, 24 lux; eta Urkizun, 23 lux errepidean, eta 24 lux parkean.